

Saskibaloia

Askatuak Cafes Aitona izango da denboraldia amaitu arte

Akordioa luza daiteke Askatuak-Easo LEB ligara igotzen bada

Askatuak-Easo Saskibaloia taldeak Cafes Aitonaren babeslea izango du denboraldia amaitu arte. Atzo Iñaki Almandozek eman zuen babeslearekin lorturiko akordioen berri, eta Askatuak-eko presidentea pozik agertu zen, klubak beti izan dituen diru arazoak konpontzen lagunduko baitu hitzarmen horrek. Gainera, akordioa denboran luza daiteke, Askatuak-ek LEB ligarako igoera lortzen bada.



Iñaki Almandozek babeslea lortu du denboraldia amaitu arte.

Erredakzioa / Donostia

ASKATUAK taldea ohituta dago tamalez estuasun ekonomikoetara, baina oraingo honetan Gabonak opari eder batekin etorri dira. Donostiako taldeak babeslea izango du denboraldia amaitu arte behintzat. Hemendik aurrera, Askatuak-ek Cafes Aitona izena hartuko du. Iñaki Almandoz presidentea atzo arratsaldeko 5etan eginiko prentsaurrekoan eman zuen albiste pozgarri honen berri. «Ez gaude oso ohituta horrelako berri onak ematen, eta berri hauek Gabonetan etorritzen badira, gure poza bikoiztu egiten da. Pozez kabitu ezinik gaude», azaldu zuen Almandozek. Taldea hemendik aurrera Cafes Aitona deituko dela iragarri zuen ondoren: «Goi mailako kirol munduan egunerok gertatzen den gauza da. Edozein taldetan, txirrindularitzan, eskubaloian, saskibaloian, zein beste kirol askotan, enpresa pribatu batek bere

txanponak, bere dirua jartzen dituen baldintza hori jartzen du, komunikabideetan bere izena ager dadin. Guk ezin dugu baldintza hori alde batera utzi eta beti egin beharko dugu. Cafes Aitona izango gara hemendik aurrera».

Hasiera batean, denboraldia amaitu arte iraungo du akordioak. Datozen denboraldietan luzatzeko, Askatuak-ek LEB ligarako igoera lortu beharko luke. Horrela azaldu zuen Almandozek: «Oraingo denboraldi hau buka-

tu arte iraungo du akordioak. Baina atea irekita gelditzen dira, apirila aldera berriro hitz egin eta datorren denboraldirako akordioa berriro ahal izateko. LEB maila lortzen badugu errazagoa izango da, baina mantenduz gero ere ikusi beharko da. Agian plangintza bat egin eta ados jartzen bagara, aurrera ater daiteke». Diru sarrera honekin, errazagoa izango da Iñaki Almandoz presidentearantz taldeak beharko duen atzeritarrak ekartzea. X

laburrean

IZOTZ HOCKEYA

■ Angeluk urtarrilaren 26an jokatu du Viry-Essonneren kontrako liga partida

JOAN DEN asteartean zuten jokatzeko Angeluk eta Viry Liga Xapelgoaren bigarren faseko partida, baina Caenen kontra jokatu, eta lapurtarrek berehala egin zieten partida gibelertzeko proposamena paristarrei. Haien arazorik jarri ez dutenez, urtarrilaren 26an jokatu da. Aurrez, Grenoble (urtarrilak 9), Chamonix (urtarrilak 12), Amiens (urtarrilak 16) eta Rouen (urtarrilak 19) taldeen kontra jokatu beharko du. Bestalde, Lionel Bilbaok 10 partidetak zigorra bete beharko du -lau bete ditu-. Eguberrietako atsedendia igarota, urtarrilaren 31n egon beharko dute jokalariek guztiek berriro. X

KIROLDEGIA

■ Kirol Elkarte Anonimoak hiru urte barru burtsara atera ahal izango dira

KIROL ELKARTE ANONIMOEN burtsan kotizatzeak aukera izango dute hemendik hiru urtera, Espainiako Parlamentuak hala erabaki ondoren. Horretarako elkarte hauek legeak zehazten dituen zenbait baldintza bete beharko dituzte: Kirol Elkarte Anonimoek Kirol Kontseilu Gorenean izena eman beharko dute; ezingo dute lehiaketa bereko beste kirol elkarteetan parte hartu, eta bi kirol elkarteetan ezingo da %5ren jabegoa baino gehiago izan. Santiago Fisas Espainiako kirol idazkariak atzo eskaintako prentsaurrekoan azaldu zuenez, erabaki honekin elkarte hauei beste elkarte anonimoek dituzten finantziario bideak zabaldu nahi zaizkie. Orain arte, Lehen Mailako Valladolid eta Atletico Madridek azaldu dute burtsan kotizatzeak asmoa. X

SASKIBALOIA

■ FIBAk akordioa lortu nahi du Europako federazioekin kontratazio askatasunari buruz

FIBAK munduko edozein jokalarik kontratatzeak askatasun osoa ematea erabaki zuen joan den azaroaren 30ean. Orain, Europako federazio indartsuenekin akordio bat lortu nahi du, hauek erabakiaren aurka azaldu baitira. Italia, Grezia, Espainia eta Frantziako Federazioak aurka agertu dira, desorekak sortzen dituelakoan. Boris Stankovic FIBAk idazkari nagusiak adierazi duenez beharrezkoa da akordio bat Europako federazio garrantzitsuen artean: «Ez da beharrezkoa hasiera batean guztien sinatzea, baina bai 10 edo 15 federazio indartsuenek». X

IGERIKETA

■ Mundu mailako izarrak izango dira aurten ere Ordiziako Igeriketa Txapelketan

ORDIZIAKO GABON SARIAK munduko igerilari onenetakoak izango ditu aurten ere. Atzo eginiko prentsaurrekoan Josetxo Elkoro antolatzaileak azaldu zuen sari hau Europako garrantzitsuenetakoa dela, parte hartzaileen kopurua zein kalitateagatik. Aurten iaz baino 30 igerilari gehiago izango dira Ordizian. EEBBetik zazpi etorriko dira, eta beste hainbat Hungaria eta Israeldik. Nabarmentzekoa da Yoav Bruck, munduko sei onenen artekoa. Guztira 26 klubek hartuko dute parte, eta 205 proba izango dira. Gainera, Manolo Garcari omenaldia egingo zaio igeriketaren alde eginiko lanagatik. X

Trontza

Lau bikotek jokatu dute Arratiako Txapelketa

■ Bihar izango da Zeanuriko plazan (17:00etan)

Koldo Alduntzin / Donostia

EGUBERRIETAN jokatu ohi den txapelketa da Arratiakoa, eta aurten ere halaxe gertatuko da. Bosgarren txapelketa izango da, eta azken hiru urteotan ez bezala, Areatzan jokatu baita, aurten Zeanuriko plazan izango da ikusgai bihar (17:00).

Arratia bailarako lau bikotek neurtuko dituzte indarrak: Intxaurbe aita semeak, Astondoa osaba ilobak, Arana II.-Etxebarria eta Arana I.-Beobide. Kirolariek 22 epai egin beharko dituzte pinu-egurreko kanaerdikoan: 16 epai etzanda eran eta beste 6ak

zutik. Iaz Pedro Arana eta Arkaitz Beobide Bizkaiko txapeldun ohiak gailendu ziren 12 minutu 25 segundorekin. Bikote garaileak 35.000 pezeta jasoko du.

Jaialdia Iñaki Beitiak -Bizkaiko txapelduna- eta Anjel Arrospide aizkolariek eta Bernardo Ureta Urpe harrijasotzaileek osatuko dute. Aizkolariei dagokienez, Zeanuriko Udalak omenaldia egin nahi dio bertakoa den Iñaki Beitiari, aurten Maila Nagusira igotzea lortu duelako. Urpek 150 kiloko zilindro zaharrarekin jardungo du, eta 5 minutuko txandan bere marka ezartzeko saioa egingo du. X

TAKOLO, PIRRIKX ETA PORROTXen BASERRIAN DISKO ETA IKUSKIZUN BERRIAK PREST



Abenduak 27, DURANGO
17:30etan Kiroldegian

Abenduak 28, ONDARROA
18:00etan Kiroldegian

Abenduak 29, ZARAUZ
17:30etan Pilotalekuan

Abenduak 30,
ZIZUR NAGUSIA
18:00etan Kiroldegian

Urtarrilak 2, ORDIZIA
17:30etan Kiroldegian

Makarroiak! bideoa kalean dagoeneko!!!!